

Bilboko Museoko *Job*

Lehenengo Piolari buruzko hausnarketa berriak eta orain arte ezagutu gabeko koadroak



Anna Orlando

**BILBOKO ARTE
EDERREN MUSEOA
MUSEO DE BELLAS
ARTES DE BILBAO**

Testu hau Creative Commons lizentziapean (mota: Aitortu–EzKomertziala-LanEratorririkGabe) argitaratu da (by-nc-nd) 4.0 international. Beraz, berau banatu, kopiatu eta erreproduzitu daiteke (edukian aldaketarik egin gabe), betiere, irakaskuntza edo ikerketarako helburuekin, eta egilea eta jatorria aitortuta. Ezin da merkataritza helburuetarako erabili. Lizentzia honen baldintzak <http://creativecommons.org/licenses/by-ncnd/4.0/legalcode> webgunean kontsultatu daitezke.



Ezin dira irudiak erabili eta erreproduzitu, argazkien eta/edo lanen egile-eskubideen jabeek berariazko baimena eman ezean.

© Testuenak: Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa-Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao

Argazki-kredituak

- © Arti Doria Pamphilj, Genova: 2. ir.
- © Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa-Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao: 1. eta 10. ir.
- © Collezione Koelliker, Milano: 4. eta 5. ir.
- © Galleria Palazzo Bianco, Genova: 3. ir.
- © Oratorio della Morte e Orazione, Genova: 13. ir.
- © Oratorio di San Giacomo Della Marina, Genova: 7. ir.
- © Reinisches Bildarchiv, Köln: 11 eta 12. ir.
- © RMN / Thierry Le Mage: 14. ir.
- © Wallraf-Richartz-Museum/Fondation Corboud, Köln: 9. ir.

Argitalpena:

B'06 : *Buletina* = *Boletín* = *Bulletin*. Bilbao : Bilboko Arte Eder Museoa = Museo de Bellas Artes de Bilbao = Bilbao Fine Arts Museum, 2. zenb., 2007, 125.-144. or.

Babeslea:

Caja Duero

«Joben koadro bat, Pioverarena (Piola)» erregistratuta dago Gio.¹ Stefano Perrazo defuntuaren jabetzako ondasunen zerrendan. Hain zuzen ere, pieza horiek enkantean atera ziren Genoan, 1668ko uztailean².

Oraindik ere Genoako Estatuaren Artxiboan dagoen jatorrizko dokumentuari buruzko berriak (handik atera zen azalpen hori) pintura horri buruzko informazioen bat gehitzeko aukera ematen du, eta, horrela, ondoriozta daiteke bat egiten duela gaur egun Bilboko Arte Eder Museoan dagoen koadroarekin³. Salmenta Piazza Cicalan egin zen, hiri zaharraren bihotzean, eta enkanteko dokumentuak esleipen-prezioen oharrei eta erosleek izenei egiten die erreferentzia. Piolaren margoa 144 liratan baloratu zen; zifra altua zen, konparatuz gero Gio. Andrea De Ferrariren *San Esteban* lanagatik ordaindutako 60 lirekin eta Borzoneren *Madonna eta santuak* koadroagatik (seguruenik, erretaula) ordaindutako 120 lirekin. Zenbateko hori kontuan hartuta, Piolaren *Job* lana neurri handikoa zela pentsa daiteke.

Dena dela, ez dakigu askorik ez margoaren aurreko jabeari ez ondorengo jabeari buruz: hurrenez hurren, Gio. Stefano Perrazo koadroaren jabea zela berau egin eta hogeitaz geroago eta, ondorioz, beharbada bera izan zela koadroa enkargatu zuena; eta, bestetik, Giovanni Battista Piattok, Piolaren lana eskuratzeaz gain, Gio. Andrea De Ferrariren *San Esteban* ere lortu zuela.

Gaur egun, ezinezkoa da mihise horren etengabeko erromesaldien jarraipena egitea. Seguruenik, baina ez ziurtasun osoz, Domenico Piola (Genoa, 1628-1709) margolariaren *Job eta seme-alabak* lana da, Bilboko Arte Eder Museoak 1923an eskuratua [1. ir.], Lanfrancori egotzia eta, gero, Genoako margolariarena dela

1 Genoako garai hartako agirietan, Giovanniren izena horrela dator idatzita.

2 Genoako Estatuaren Artxiboa, Antzinako Notarioak, 8307, Gio. Teramo Burgenzio notarioa, 268. dok., *Callega bonorum quondam domini Gio. Stapahni Perratij*, 1668ko uztailearen 17an. Partzialki transkribatutako dokumentu horren aipamena hemen dago: Belloni 1973, 56. or. Eskerrak ematen dizkiet Agnese Marengori eta Genoako Estatuaren Artxiboko langileei, emandako laguntzagatik.

3 Dokumentuan aipatutako koadroaren eta Bilboko koadroaren arteko lotura aipatu zuen lehenengoa hauxe izan zen: Sanguineti 2004, 377. or. Hipotesia baino ez du ematen, Belloniren adierazpen partzial eta hutsunez beterikoaren ondorengo datuen faltan. Bilboko obra (175,5 x 220 cm) jabe partikular bati (Eduardo Flugas) erosi zion museoak, 1923ko uztailearen 14an. Museoko obren lehenengo katalogoan (1923), lan hori Domenico Piolarena dela aipatzen da. Obrari buruzko bibliografia osoa Ana Sánchez-Lassak jaso zuen: Genoa 2003, 104. or, 16. zenb. Horri beste bat gehitzen zaio: Sanguineti 2004, 376.-377. or., I.7. zenb., VI. ir.



1. Domenico Piola (1628-1709)
Job eta bere seme-alabak, c. 1650
Olioa mihisean. 175,5 x 220 cm
Bilboko Arte Eder Museoa
Inb. zenb. 69/196

sumatu dena, haren sinadura aurkitu ostean⁴. Litekeena da koadro bera izatea, nahiz eta gaia nahiko arraroa izan (ez esateagatik apartekoa dela margolariaren obren katalogoan); eta guztiz anomaloa da bere erreper-toriorik tipikoenaren barruan: alegoriak, gai sakroak eta jainkozaleak, eta, neurri txikiagoan, Bibliako eszena handiak, hau bezalakoak.

Job (Bibliako liburu oso bat eskaintzen zaio) gizon justua da. Giza sufrimenduaren drama eta Jaungoikoa-rekiko etengabeko debozio eta obedientziaren bertutea islatzen ditu. Satanek, Jaungoikoari frogatu nahian fedea amore ematen duela zoritxar handien aurrean, Joben kontra bideratzen du bere botere maltzurra, haren ganadua, etxea, zerbitzariak eta seme-alabak suntsituz. Mezulari bat heltzen da Jobengana, eta esaten dio: «Zure seme-alabak anaia zaharraren etxean bazkaltzen ari zirela, basamortutik etorritako haize-eraso bortitzak lau aldeetatik astindu du etxea. Eta lurrera erortzean, guztiak hil ditu» (Job, 1, 18-19). Horixe da Piolaren koadroak jasotzen duen une zehatza. Bibliarekiko bariante bat aukeratzen du berak, zeinetan Jobek, eszenaren ezker aldeko muturrean emazte zaharraren alboan biluzik agertzen denak, zerurantz begiratzen baitu, atsekabetuta baina konfiantzarekin. Protagonistaren biluztasuna esplizitua da Piolaren errepresenta-zioan, eta Bibliak hurrengo txataletan kontatzen duenarekiko erreferentzia zuzena ahalbidetzen du: «Orduan, jaiki, bere jantzia urratu eta ilea zeharo moztu zuen Jobek. Gero, lurreraino ahozpeztuz, otoitz egin zuen, esa-nez: biluzik irten nintzen amaren sabeletik, biluzik itzuliko naiz lurraren sabelera. Jaunak eman dit eta Jaunak kendu. Bedeinkatua Jaunaren izena!» (Job, 1, 20-21).

Inplikazioetan aberatsa den ikonografia dauka, eta, obra enkargatu zuenak, gaiarekin identifikatzeko nahian, munduan sufritutako zorigaitzen kontsolamendua bilatzen zuen ikonografia horren bitartez, bere fedearen indarra sendotzeko eta lurreko ondasunetatik urruntzeko aukera bilatuz. Modu horretan, aberastasunaren eta oparotasunaren amarruei buruzko hausnarketa bat da. Izan ere, garai hartako –1650– Genoako aristokrazia eta burgesia oparotasun horretan bizi zen. Gai bera modu desberdinetan agertzen da Piolaren gaztetako mihise handi batzuetan. Bere katalogoko lehenengo zenbakiak aztertzen baditugu⁵, margo horizontal bat aurkituko dugu, seguruenik handia. Bertan, Dabid eta Abigailen istorioa kontatzen zen, gizon aberats eta botere-tsuaren bertute eta eskuzabaltasunaren eredu; *Bakearen eta Oparotasunaren alegoria* delakoaren bi bertsi- desberdin dira. Azken hori ere aberastasunaren gaiari dago lotuta, eta bisualki esplizitua da, lore, fruta, animalia, tapiz apaingarri eta abarrez betetako mahai handiari esker. Hasierako urte horietan, Piola bere koi-natu Stefano Camogliarekin aritzen zen lankidetzan, natura hilen eta animalien osagarri aberatsetan. *Mercato* handi bat zen⁶, baina, oraingoan asmo moralizatzailerik gabe, berriro garamatza *Superbako* [Harrokeria, Genoa hiriaren ezizena] ongizatearen gaira, historiako une zoriontsu honetan.

Joben koadroak erakusten duenaren arabera, patu pertsonalaren zorigaitzek mehatxupearan jarritako ongizatea da, edo, bestela, historiaren gorabeherak dira ongizatea mehatxatzen dutenak, gizon bertutetsuak fedearen indarrak aurre egiten badie ere.

Leinu baten heriotzaren eta suntsipen katastrofikoaren gaia bisualki zehaztu zuen Piolak Bilboko mihise handi ia osoaren gai dramatikoan. Artista oso gaztea zen orduan –hogeita bi urte zituen, zehazki⁷– eta aurrekari ikonografiko nabarmen ugari jasotzen ditu bertan, lurrean etzandako gorpuen eskortzo ausartak lortzeko, mi-hisearen aurrealdean ikuslearen gainera erortzen ari diren unean.

4 Margoak «D. Piola. an(non)rum XX.II» dauka idatzita, eraitsitako ateburuaren gainean. Ondorioz, artista horrek egin zuen hogeita bi urte zituela. Domenico Piola 1628an jaio zen, eta ez 1627an, adierazi zen moduan (Sanguineti 2004, 243. or.). Beraz, datazio zuzena 1650. urtekoa da (Ibid., 376. or.).

5 Ibid.

6 Elena de Laurentiis in Genoa 2006, 54.-55. or., 10. zenb.

7 Erref. 4. oharra.



2. Perin del Vaga (1501-1547)
Erraldoien erorketa, 1531-1533
 Freskoa
 Palazzo del Principe (Palazzo Doria), Genoa



3. Giovanni Benedetto Castiglione,
 "El Grechetto" (1609-1664)
Kain eta Abel
 Olioa mihisean. 249 x 296 cm
 Galleria di Palazzo Bianco, Genoa

Zelan ez pentsatu Perin del Vagak Genoako Andrea Doriaren Jauregiko («Printzearena» izenarekin ezagutzen dena) mendebaldeko saloiaren gangan pintatu zuen *Erraldoien erorketa* fresko ospetsuan [2. ir.]? Domenico Piolaren lehenengo biografoa izan zen Carlo Giuseppe Rattik dioenez, Gio. Domenico Cappellino margolaria-ekin ikasi ostean, «Perin del Vagaren margo zoragarriak aztertzen hasi zen, Doria Printzearen Jauregian»⁸.

Piola gaztearen lehenengo ikasketei buruz hitz egiterakoan, Rattik gogoratzen du «Castiglioneren lanen imitatzaille zorrotza» izan zela. «Balio handiko gizon horren diseinu eta koadroak lortzen bazituen, zehaztasunez erretratatzeko zituen. Eta poz handia lortzen zuen pintzelada horiekin (...)»⁹. Perin del Vaga aurrekari nabarmena bada *Job* lanarentzat, ez dira hain nabarmenak baina bai fin eta garrantzitsuagoak Giovanni Benedetto Castiglioneren [3. ir.] obrei egindako aipamen ugariak. Aipatutako artista hori Grechetto (Genoa 1609-Mantua 1664) izenarekin ere ezagutzen zen, eta Piolarekin batera ibili zen, Genoako beste gazte askorekin bezala, Rubensek XVII. mendearen lehenengo urteetan oso-osorik irekitako modernitatearen eta

8 Ratti 1769, 31. or.

9 Ibid.



4. Gioacchino Assereto (1600-1650)

Kain eta Abel

Olio mihisean. 180 x 138 cm

Koelliker bilduma, Milan

Inb. zenb. LK 1054

5. Giovanni Battista Langetti (1635-1676)

Ixionen tortura

Olio mihisean. 230 x 160,5 cm

Koelliker bilduma, Milan

Inb. zenb. LK 0567



barrokoaren bidetik. Rubensen indar kromatiko, konpositibo eta formalak eta Castiglioneren naturalismoak eta inspirazio kultu eta zorrotzak sortu zuten Piola gaztearen *humus* kulturala. Gioacchino Assereto (Genoa, 1600-1650) [4. ir.] eta Giovanni Battista Langetti (Genoa, 1635-Venezia, 1676) [5. ir.] artistak segurtasun handiagoz ibili ziren naturalismoaren bidetik: graziaz kontatutako eta koloreen fantasiaz betetako mito eta alegoriek ez zituzten bi horiek hain erraz liluratu, bera liluratu zuten bezala. Eurengana ere jo behar da, dagozkien jauzi kronologikoekin, Piolarentzat konplexua, berria eta anomaloa den koadro baten harreman figuratiboen sarea ulertzeko. Bilboko *Job* koadroaz ari gara.

«Pintatzeko modu hori ikasi eta perfektionatzeko aukerarik onena Valerio Castellok eman zion garai hartan. Bere lan batzuk ikusi eta asko gustatu zitzaizkionez, lankide gisa aukeratu zuen Santa Maria in Passione mojen elizaren barruan hasi zituen lanetarako»¹⁰ (suntsitutako freskoak). Valeriores (Genoa, 1624-1659) azken garaian gaude. Gazterik hil zen eta, ondorioz, freskoak amaitu gabe utzi zituen. Piolak jarraitu zuen fresko horiekin. Ordurako, Domenicok ganga eta hormetan pintatzeko saiakera egin zuen, mihisean pintatu beharrean. 1651ko udan, aurrerapen bat jaso zuen San Domenico elizako Marini familiaren kaperarako freskoetan erabili behar zituen koloreak eskuratzeko (gaur egun, eliza hori suntsituta dago). Gainontzekoa 1653an ordaindu zitzaion. Beraz, berrogeita hamarreko hamarkadan sortu zen Piola fresko-egilea, baina 1650eko Bilboko *Job* mihise garrantzitsu eta handia sortu baino lehenago egin zuen topo Valeriores pintura bizi, azkar eta arinarekin¹¹.

1647an, Domenico Piolak *Santiagoren martirioa eta gloria* erretaula egin zuen Genoako San Giacomo della Marinaren oratoriorako. Obra freskoa da, gaztarokoa, eta Valerio Castelloren laguntza zuzena izan zuen. Hain zuzen ere, Castellok egin zuen prestaketarako zirriborroa¹² [6. ir.].

¹⁰ Ibid, 23. or.

¹¹ Erref. 4. oharra.

¹² Marzia Cataldi Gallo in Rotondi 1996, 85. or., 74. ir.; Sanguineti 2004, 373. or., l.1. zenb.; Manzitti 2004, 92.-93. or., 32. zenb.



6. Valerio Castello (1624-1659)
Santiagoren martirioa eta loria, 1647
 Olioa mihisean. 62 x 48,5 cm
 Bilduma partikularra

S. Giacomo della Marinareko lana hasierako Piolaren trebakuntzarako funtsezko poloa izan zen: hogeitun urtekin bere lehenengo enkargu publikoaren aurrean egon zenean (oro har, bere hasierako obretako bat izan zen), bazekien *Santiagoren bataila* erretaula handik metro gutxira jarriko zutela. Hain zuzen ere, erretaula hori urte bi lehenago egin zuen Castiglione¹³ [7. ir.].

Batetik, Castiglioneren obra; bestetik, Valerionen estiloa. Piola gazteak beste maisu bat ere izango zuen kontuan: Giulio Cesare Procaccini, Genoan aspalditxotik modu aktiboan ari zena eta presente zegoena bertako bildumetan, obra ugariarekin mendeko bigarren hamarkadatik aurrera. Bere obra bikainetako batek *Santiagoren bataila* lan handia gogorarazten du. Obra hori Gio. Carlo Doriarentzat izan zen pintatua, 1617 eta 1621. urteen artean¹⁴ [8. ir.], eta *Job* lanaren aurrekari bisual zuzena edo zeharkakoa izan zen.

Modu horretan, milandarren bikaintasun kromatikoa elkartu egin zen Rubensen obrek Genoan transmititu zuten kolorearekiko gustuarekin, tematika berritzaile eta apurtzaile horretara hurbiltzeko adorea izan zutenen kasuan¹⁵. Rubens mugimenduan zegoen arte berriaren maisua zen, eta hasierako Piolaren esperimentazio formal eta konpositiboek kontuan hartu zuten hori. Joben koadroaren lehenengo planoko gorputz etzanean Rubensen aipamen zuzena ikusteaz gain (esate baterako, gaur egun Koloniako Wallraf-Richartz-Museumen

13 Fausta Franchini Guelfi in Rotondi 1996, 63.-82. or., 5. zenb.

14 Anna Orlando in Genoa 2004, 232.-233. or., 40. zenb.

15 Orlando 2004.



7. Giovanni Benedetto Castiglione, "El Grechetto" (1609-1664)
Santiagoren bataila, c. 1645
Olioa mihisean. 316 x 327 cm
Oratorio di S. Giacomo della Marina, Genoa



8. Giulio Cesare Procaccini (1574-1625)
Santiagoren bataila, c. 1618-1620
Olioa mihisean. 335 x 310 cm
Bilduma partikularra



9. Peter Paul Rubens (1577-1640)
Juno eta Argos, 1611
 Olioa mihisean. 249 x 296 cm
 Wallraf-Richartz-Museum, Corboud Fundazioa, Kolonia
 Xehetasuna



10. Domenico Piola (1628-1709)
Job eta bere seme-alabak, c. 1650
 Olioa mihisean. 175,5 x 220 cm
 Bilboko Arte Eder Museoa
 Xehetasuna



11. Domenico Piola (1628-1709)
Venus eta Maitasuna, Vulcanoren sutegian
 Olioa mihisean. 160 x 140 cm
 Bilduma partikularra



12. Domenico Piola (1628-1709)
Aingeru zaindaria
 Olioa mihisean. 100 x 127 cm
 Bilduma partikularra

(Corboud Fundazioa) dagoen *Juno eta Argos* koadroan [9. ir.], Genoan 1658tik aurrera dokumentatua baina, zalantzarik gabe, Genoako artisten obretan zeuden erreferentzia ugariengatik, urte hori baino lehen egon zena presente¹⁶, Rubensen Genoako obrak, *in toto*, arrasto nabarmenak utzi zituen Piola gaztearengan [10. ir.]. Ikus ditzagun adibide gisa *Venus eta Maitasuna, Vulcanoren sutegian* lana [11. ir.] edo orain arte argitaratu gabe zegoen eta, antigoalen etxetik pasatu ostean, duela gutxi aztertu den *Aingeru Zaindaria* [12. ir.]¹⁷.

Domenicoren obra horiei (1650eko *Job* lanetik hurbilekoak) buruzko ikerketa aurrera doa. Forma aldetik sendotasun handiagokoak dira, eta, adierazpenari dagokionez, konpaktu eta tinkoagoak: oraindik ez obra

¹⁶ Ibid., 83. or.

¹⁷ Anna Orlando in *Aste di antiquariato Boetto*, Genoa, 2006ko azaroaren 27-28a, 421. lotea, 216-217. or. Pinturak 100 x 127 cm-ko neurria dauka eta eranskin bat dauka goiko aldean.



13. Gregorio De Ferrari (1647-1726)
Tobias, bere aita hilobiratzen
 Olioa mihisean. 305 x 207 cm
 Oratorio della Morte e Orazione, Genoa



14. Gregorio De Ferrari (1647-1726)
Juno eta Argos, 1685-1695
 Olioa mihisean. 137 x 139 cm
 Musée du Louvre, Paris
 Inb. zenb. R.F. 1981-9

helduak bezain beste, baina urrunduz doa 1647-1649ko obren pintzelada bizi, arin eta «valeriarretatik»: San Giacomo de la Marinako aipatutako erretaula, Albengako (Savona) Elizbarrutiko Museoko *Azken afaria*, 1649koa; Voltaggioko (Alessadria) Pinakotekako *San Gregorio Handia* mihisea, aurrekoetatik hurbilekoa; de-nak dira bizi-biziak, zirriborratutako baina marraztu gabeko silueta difuminatuetan.

Piolak bere lehenengo obra publikoak lantzen zituen bitartean, Porto Maurizio, Liguriako mendebaldeko muturrean, Frantziako mugan, Gregorio De Ferrari jaio zen (Porto Maurizio, 1647-Genoa, 1726), gerora ha-ren ikasle eta suhi izatera helduko zena. Rococó pinturaren inguruan zuen liguriar zentzu bikaina Piolaren itzalpean sortu zen; *Job* lana baino zenbait hamarkada geroago egindako konparazio batzuek nolabaiteko

interesa dute, margolari gazteak 1650ean zuen modernitatea eta ausardia erakusteko orduan. Ikus ditzagun, adibidez, *Tobias, bere aita hilobiratzen*, Genoako Oratorio della Morte e Orazione [13. ir.], edo *Juno eta Argos*, Louvreko Museoan [14. ir.].

Hemen azaldu ditugun eta Piolak urratsez urrats ibili zituen arrasto ikonografikoak, osagai estilistikoetan berrikusiak, hasierako Piolaren ehundura kulturalaren isla dira. Urte haietan, bere inguruan eta bere aurretik izan zituen maisu handien lezioak jakituria handiz ikasi zituen; haien ideia, modu eta estiloak bereganatu zituen; trebakuntzako lehenengo urteetan hirian ikusgai zituen obrei buruz hausnarketa egin zuen, eta, horrela, apurka-apurka, estilo pertsonal eta arrakastatsua lortu zuen, mende erdialderantz. Domenico Piolaren lanak XVII. mendearen bigarren erdialdean izan zuen berrespena gauza frogatua eta garrantzitsua izan zen Genoako kulturarentzat: enkargu publiko eta pribatu garrantzitsuen giroa menperatzen zuen, freskoen ziklo handiak eta aldareen erretaula ugari eginez. Paolo Gerolamo semearekin eta Gregorio De Ferrari suhiarekin batera tailer bat zuen. Bera zen tailer horren buru, eta rococóaren mendera helduko ziren, loriaz beterik. Baina, hala ere, Domenicoren gaztetako urteetan bilatu behar da arrakasta horren arrazoia: kontuan hartu behar dira Bilboko *Job* obrak dituen erreferentzia kultural ugariak, oraindik ere ez zena lar «tipikoa» estiloan, Piolarik ezagunenari zegokionez. Hain zuzen ere, gaztetako esperimentazio konplexu eta ausart baten fruitu delako.

Hogeita bi urterekin (*Job* mihisean adin hori duela agertzen du, nabarmen gainera), badirudi Domenico Piola heldutasunean sartzen dela artista gisa. Hori erakutsi nahi ote zuen, harrotasun apur batekin bere adina zehaztu zuenean berarentzat konpromiso handikoa izango zen koadro batean, data simple bat jarri beharrean?

Hipotesi bat da.

BIBLIOGRAFIA

Belloni 1973

Venanzio Belloni. *Penne, pennelli e quadreie : cultura e pittura genovese del Seicento*. Genova : Emme-Bi, 1973.

Genoa 2003

Bilbao a Genova : la cultura cambia le città. [Erak. kat., Genoa, Palazzo Ducale]. Germano Celant (a cura di). Milano : Skira, 2003.

Genoa 2004

L'età di Rubens : dimore committenti e collezionisti genovesi. [Erak. kat., Genoa, Palazzo Ducale; Galleria di Palazzo Rosso; Galleria nazionale di Palazzo Spinola]. Piero Boccardo (a cura di). Milano : Skira, 2004.

Genoa 2006

I fiori del barocco : pittura a Genova dal naturalismo al rococò. [Erak. kat., Genoa, Palazzo Rosso; Palazzo Bianco]. Anna Orlando (a cura di). Cinisello Balsamo, Milano : Silvana, 2006.

Manzitti 2004

Camillo Manzitti. *Valerio Castello*. Torino : U. Allemandi, 2004.

Orlando 2004

Anna Orlando. «Con e senza Rubens : la pittura genovese di primo Seicento» en *L'età di Rubens : dimore committenti e collezionisti genovesi*. [Erak. kat., Genoa, Palazzo Ducale; Galleria di Palazzo Rosso; Galleria nazionale di Palazzo Spinola]. Piero Boccardo (a cura di). Milano : Skira, 2004, 69-85. or.

Ratti 1769

Carlo Giuseppe Ratti. *Delle vite de' pittori, scultori, ed architetti genovesi tomo secondo scritto da Carlo Giuseppe Ratti... in continuazione dell'opera di Raffaello Soprano*. Genova, 1769.

Rotondi 1996

Giovanna Rotondi Terminiello (a cura di). *San Giacomo della Marina : un oratorio di casaccia a Genova nel cammino verso Compostella*. Genova : Sagep, 1996.

Sanguineti 2004

Daniele Sanguineti. *Domenico Piola e i pittori della sua casa*. Soncino Cremona : Edizioni dei Soncino, 2004.